

Asiron eta Otxandiano

Joxean AGIRRE

Aurtengo negurako ez zegoen aurreikuspen berezirik. Ohi bezala eta atariko moduan, antzarak igaro ziren behin eta berriz zeruan geziak marrastuz eta pentsatzekoa da antzara domestikoak, Ipar Euskal Herriko haztegietan bizi direnak bereziki, aztoratu egingo zirela haiei begira, bizimodu berri baten promesa zeramatelako bidaia horretan, eta gazteenek hegaldatzeko saiakera baldar batzuk egingo zituzten, guk Pou anaien eskalada bat, Oyarzabalen gol bat edo Willis Drummondeko Felix Buff bateria jotzen ikusten dugunean bezala, geure baitan baldarki bada ere imitatuz.

Neguairen iragarpen gehiago etorri ziren ondoren eta mendi gailurrak lehen

aldiz zuritu orduko Andoni Aizpuru urduri sumatu genuen. Somporten edo Belaguako El Ferialen zenbait zentimetroko geruza zegoen aipatzen zuen eguna joan eta eguna etorri, astebururako planak egiten hasia zen seinale.

Neuri ere elurrak umetako poza eragin izan dit barrenean, baina adinak ez du barkatzen eta azken aldi honetan zirrara bai, baina bozkario beterik gabe nenbilen, Asiron eta Otxandiano iritsi ziren arte. Lehena alkate izateko jaio zela iruditzen zait eta denok nahi genuke halakoxe bat gure herrian. Bigarrenak ez du beharbada aurrekoaren jendetasun, berotasun eta karisma, baina ezkerreko diskurtsoak erabat errepikakorrak eta prebisibleak bilakatu diren garai ho-

netan, bereak atipikoak dira, argigarririk, originalak. Hezkuntza Legeari egindako bere ekarpen batzuk irakurri eta liluratu egin ninduen. GAUR8 honetako bere kolaborazioa bukatutzat eman eta agur esan zuenean, pasatu zitzaidan burutik ez ote zen lehendakari-gai aurkezten zelako izango, baina beste askotan bezala desioak eta errealitatea nahasten ari nintzela pentsatu nuen. Gero Bilboko manifi Arnaldoren ondoan eta segidan kiniela gehienetan agertzen zela ikusita, pozten hasi nintzen eta lehendakari-gai bera zela jakin nuenean elurra zapaltzen duen ume baten antzera sentitu nintzen edo Andoni Aizpuruk iraupen eskiak janzen ditue-nean bezalaxe. •

Aldatu da zerbait

Maddi Aiestaran
IPARRAGIRRE

Prender euskaraz omen da: 1, heldu, oratu. 2, lotu, finkatu. 3, su eman, sutu. Eta lau, eta bost, eta sei... Ez dakit, egia esan, zein adiera darabilen Bad Gyal-ek “La prendo” kantuan; elkarri heltzeaz, elkarrengana lotzeaz eta elkarrekin sustzeaz ari zen Aissa Intxausti.

Bertso finalak izan dira orain arte urduritasuna, apustua, sintonia, isiltasuna, txaloak, agurrak, gorputz zurrunak, potoa, txutxu-mutxuak, ofizio aspergarriak, azken puntu potenteak, iskanbila, komunera txangoak, bertso pila bat, epaileen puntuazioa, batzuen poza eta besteen muturra. Eta bertsozaleek begiratu izan diote txapelari,

zortziko txikiko lapsusari eta bakarkako ez hain asmatuari. Pasa den larunbatean, Bilboko Miribillan beste zerbait gertatu zen, baina. Bertso final bat izan zen, bai, bere urduritasun, bere apustu, bere sintonia, bere txalo, bere poto, bere ofizio aspergarri, bere puntuazio... Baina gertatu zen zerbait ez dena gertatu orain arte, eta nahi nukeen hemendik aurrera askotan gerta dadin.

Briz-briz kolektiboa deitu dio txapel-dunak. Ofizio ondorengo bizkarreko kolpetxoak bihurtu ziren besarkada es-tu. Pozak bihurtu ziren kolektibo. Jende-zko olatuek lortu zuten behingoz oholtza gaina bustitzea. Oholtza bihur-

tu zen harmaila bezain itsaso. Txaloak bihurtu ziren maitasun. “La prendo” bihurtu zen bertso doinu. Hunkidura bihurtu zen oso kolektibo. Ausardia erdigune. Elkar maitatzeari egin zitzaion toki Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean; eta nik, norabait mugitu nahi izatekotan, horrantz egin nahiko nioke putz bertso munduko aire estankatuari.

Izan dadila inflexio-puntu bat bertso munduan. Ni sinetsita nago hala izango dela. Eman diogula su, eta segituko dugula suari puzka. Aldatu dela zerbait, egin duela klak, eta segituko dugula aldarazten. Hauze behar zuen bertso munduak. •